

Zuzenketarako koadernoa

Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2007

Irakurriaren ulermena 1

Lehen Hezkuntzako 2. kurtsoa

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

MARITXU - ARIKETAK

1. Aukera ezazu beste izenburu bat ipuinarentzat.

- Joxepa
- Sorginen herria
- Bihotz oneko umeak
- Joxe eskuzabala

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

2. Non gertatzen dira ipuinaren pasarteak?

- Mendian
- Elizan
- Hirian
- Herri batean

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

3. Zergatik idazten dira Maritxu eta Joxe hizki larriz (maiuskulaz)? (Esaldi osoa idatzi)

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Izen bereziak edo pertsonen izenak direla aipatzen badute.
- *Pertsonen izenak direlako*

- *Pertsonen izenak maiuskulaz idazten dira.*
- *Pertsonen izen guztiak hizki handiz idazten direlaqo.*
- *Izenak direlaqo idazten dira Maritxu eta Joxe hizki larriz.*
- *Izenak direlaqo.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

4. Zergatik dago marratxo bat esaldi batzuen aurrean?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Elkarrizketaren ezaugarria dela nolabait adierazten badute.

- *Pertsonaiak hizketan daudenean.*
- *Pertsonek hitz egiten dutenean.*
- *Gauza bat esaten dutenean.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

5. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera (1, 2, 3, 4):

3 Alkateak Joxe deitu zuen.

2 Maritxuk parkean kanpin-denda jarri zuen.

4 Maritxu lehen bizi zen etxera itzuli zen.

1 Maritxu eliza ondoko etxe zahar batean bizi zen.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: 3-2-4-1

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

6. Zer ireki nahi zuen Joxek?

Ludoteka

Taberna

Eliza

Udaletxea

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: B

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

7. Ongi iruditu zaio irakasleari Joxek egin duena? (Esaldi osoa idatzi)

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Ez zaiola ongi iruditu adierazten badute.

- *Ez zitzaion ongi iruditu irakasleari Joxek egindakoa.*
- *Ez zaio ondo iruditu.*
- *Gaizki iruditu zaio Joxek egin duena.*
- *Hori oso gaizki dago.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

8. Esan egia edo gezurra diren esaldi hauek (E = egia, G = gezurra):

G Maritxu hirurogei urteko amonaxo bat da.

G Alkateak Maritxu deitu zuen.

E Txikiak izan arren, umeak amona laguntzeko prest zeuden.

G Maritxu bere familiarekin bizi zen.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Hiru edo lau erantzun ongi: G-G-E-G.

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Hiru erantzun zuzen baino gutxiago.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe.

9. Nola zegoen Maritxu amonaxoa mantaren azpian?

- Barrez
- Haserre
- Loguraz
- Negarrez

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

10. Zer esan nahi du Maritxuk “xentimorik ere ez daukat eta” esaten duenean?

- Bakarrik billete handiak ditut
- Ez dut dirurik etxean
- Oso pobrea naiz
- Ez dut dirurik tabernara joateko

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

11. Zergatik joan ziren alkatearengana irakaslea eta umeak Maritxuren arazoa konpontzeko? (Esaldi osoa idatzi)

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Lagundu nahi diotela, Maritxuren egoerak pena ematen diela, zerbait lortu nahi dutela, alkateak agintzen duela edo antzeko zerbait adierazten badute.

- *Maritxuri laguntzeko.*

- *Esateko Maritxu_k arazo bat duela.*
- *Esateko Maritxu_k laguntza behar duela.*
- *Maritxu etxean geratzen uzteko.*
- *Taberna jartzen ez uzteko.*
- *Alkateak agintzen duelako, horregatik joan ziren alkatearengana.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

12. Joxe neska-mutilekin haserretu egin zen. Bilatu testuan hori adierazten digun esaldi bat eta kopiatu.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Honako hau kopiatzen badute: *Udaletxetik irtetean amorruz begiratu digu.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

13. Zer adierazi nahi zuten irakasleak eta umee_k beren txaloekin? (Idatzi pentsatzen duzuna)

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Pozik daudela, lortu dutela nahi zutena, arazoa konpondu dela edo antzeko zerba_t adierazten badute.

- *Pozik daudela adierazten du.*
- *Lortu dutelako nahi dutena.*
- *Konpondu zelako arazoa.*
- *Gora, gora! Maritxu bere etxera itzultzen da.*
- *Joxek papera firmatu zuelako.*
- *Utzi duelako Maritxu etxean bizitzen daude txaloka*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

14. Non aurkitu dezakezu istorio hau?

- Egunkarian
- Hiztegi batean
- Ipuin-liburu batean
- Olerki-liburu batean

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

Zuzenketarako koadernoa

Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2007

Irakurriaren ulermena 2

Lehen Hezkuntzako 2. kurtsoa

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



URTXINTXA

15. Zein da testu honen helburua edo asmoa?

- Baso bat erakustea.
- Txorien habiak erakustea.
- Urtxintxa hegazti harrapariekin konparatzea.
- Urtxintxari buruzko informazioa ematea.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

16. Zer du luzeago urtxintxak, gorputza ala isatsa? Zergatik?

Puntuak: 2 / Kodea: 2 "Gorputza" erantzuten badute eta arrazoia azaltzen badute.

- *Gorputza du urtxintxak isatsa baino handiagoa. Gorputzak 5 cm gehiago neurtzen duelak.*
- *Gorputza da luzeagoa. Gorputza 25 cm eta isatsa 20 cm.*

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Gorputza luzeagoa dela esaten badute, arrazoia eman gabe.

- *Gorputza da luzeagoa.*
- *Gorputzak neurtzen du gehien.*
- *Gorputza da handiagoa.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

17. Zer du belarri puntetan?

- Ezkatak

Arantzak

Ile mordoa

Lumak

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

18. Zertarako ditu azazkal zorrotzak? (Esaldi osoa idatzi).

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Zuhaitzetan gora eta behera ibiltzeko direla adierazten badute.

- *Zuhaitzetan gora eta behera hobe ibiltzeko dira.*
- *Zuhaitzetara igotzeko.*
- *Zeren horrela joaten da zuhaitz batetik bestera.*
- *Zuhaitzetatik pasatzeko.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

19. Zein izenburu jarriko zenioke testuko zati honi?

Intxaurrak, ezkurak, pinaburuak, onddo jangarriak, intsektuak eta hegazti-arrautzak jaten ditu. Negurako elikagai ugari biltzen du txoko ezkutuetan, batez ere intxaurrak.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Urtxintxaren jana edo janaria, urtxintxarentzako elikagaiak edo antzeko izenburu onargarria idazten badute.

- *Urtxintxaren janaria.*
- *Urtxintxak jaten duena.*
- *Urtxintxak biltzen duena.*
- *Zer jaten du urtxintxak?*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 OnargarriaK ez diren izenburuak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

20. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan EGIA edo GEZURRA diren (E = egia, G = gezurra):

- E Urtxintxa ornoduna da.
- G Jauzi txikiak egiten ditu.
- E Negurako elikagaiak biltzen ditu.
- G Arrautzak jartzen ditu.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Hiru edo lau erantzun ongi: E-G-E-G

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Hiru erantzun zuzen baino gutxiago.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

21. Zer esan nahi du “jangarri” hitzak?

- Arriskutsua dela hori jatea.
- Jateko ez dela.
- Jaten ahal dela.
- Oso goxoa dela.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunik

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago



22. Marrazkietan ikusten den moduan urtxintzak bi habia mota egiten ditu. Kopiatu testutik hori adierazten duen esaldia.



Puntuak: 2 / Kodea: 2 Esaldi zuzena kopiatzen badute: *Normalean urtxintxak zuhaitzen barnealdean egiten du habia, baina batzuetan abartxo, goroldio eta belarrez adarretan egiten du.*

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Argazki-oinak kopiatzen badituzte: *Urtxintxaren habia zuhaitz barnealdean. Urtxintxaren habia zuhaitz adarretan.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

23. Urtxintxa amak kumeak egitean, zenbat izaten ditu?

1-2 izaten ditu.

7 baino gehiago izaten ditu.

3-4-5-6 kume izaten ditu.

Dozena bat izaten du.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

24. Zein animalia dira urtxintxaren etsairik handienak? (Esaldi osoa idatzi).

Puntuak: 2 / Kodea: 2 Lepahoria eta hegazti harrapariak aipatzen badituzte.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Bakarrik lepahoria **edo** hegazti harrapariak idazten badute, ez biak.

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

25. Zein liburutatik hartu da testu hau?

- Ipuin liburu batetik
- Entziklopedia batetik
- Olerki liburu batetik
- Errezeta liburu batetik

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: B

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago


26. Hona hemen urtxintzarekin zerikusia duten hitzak:

intxaurrak
isatsa
gorrixka
jauzi egin

trebea
habia egin
belarriak
onddo jangarriak

azazkalak
elikagaiak bildu
hegazti-arrautza

Sar itzazu hitz horiek lauki bakoitzean



Puntuak: 3 / Kodea: 3 Hamaika erantzunak ongi:

Puntuak: 2 / Kodea: 2 Bederatzi edo hamar erantzun zuzenak

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Zazpi edo zortzi erantzun zuzen.

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Zazpi baino gutxiago erantzun ongi.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

PROBAREN DESKRIBAPENA

Item kopurua: 26. Puntuak, guztira: 31 - Puntu bat balio duten galderak: 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-17-18-19-20-21-23-25 - Bi puntu balio duten galderak: 16-22-24 - Hiru puntu balio duen galdera: 26

PROBAREN BALORAZIOA

Zikloko helburuak argi eta garbi lorturik: 21 puntu. Helburuak doi-doi lorturik edo lortzeko bidean: 19-20 puntu. Zikloko helburuak lortu gabe: 18 puntu edo gutxiago.
--

ITEMAK ETA PUNTUAZIOA TESTU MOTAREN ARABERA

TESTU MOTAK	ITEMAK	PUNTUAZIOA	OHARRAK
Narrazioa	1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14	14 puntu	
Azalpen testua	15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26	17 puntu	2 puntu: 16., 22., eta 24. itemak 3 puntu: 26. itema
Guztira	26 item	31 puntu	

ITEMAK ETA PUNTUAZIOA IRAKURTZEKO PROZESUEN ARABERA

IRAKURTZEKO PROZESUA	ITEMAK	PUNTUAZIOA	OHARRAK
Informazioa berreskuratzeke galderak	6-7-8-9-17-18-20-23-24	10 puntu	2 puntu: 24. itema
Ulermen globalerako galderak	1-2-5-14-15-19-25-26	10 puntos	3 puntu: 26. itema
Interpretaziorako galderak	10-11-12-13-16-21-22	9 puntos	2 puntu: 16. eta 22. itemak
Edukiaren hausnarketari buruzko galderak	-	-	
Formaren gaineko hausnarketari buruzko galderak	3-4	2 puntu	
Guztira	26 item	31 puntu	

Puntuak, guztira:

ZUZENTZAILEARENDAKO MATERIALA

Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoa

Problemen ebaluazioa

Izena eta deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua

Problemak zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak.

1.- "**Bost puntu**" emanen dira, problema ongi planteatu bada eta emaitza zuzena bada.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Problemak ulermen jardueraren bat baldin badu, eta ikasleak ulermen jarduera horietako baten batean huts egin arren ongi planteatu eta zuzen ebatzi badu, 5 puntu emanen dira.
- b) Problema ongi planteatu bada, paperean desordenaturik izanagatik ere 5 puntu emanen dira.
- c) Eragiketaren bat falta bada, baina aparteko zirriborro batean egin izanaren susmoak badaude, 5 puntu emanen dira. Berdin jokatu da eragiketa buruz egin bada.

2.- "**Lau puntu**" emanen dira problema ongi planteatu arren emaitza okerra bada, eragiketaren batean okertu delako. Nolanahi ere, emaitza sinesgarria izanik.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Emaitza "sinesgarritzat" joko dugu muga logikoen barnean sartzen denean, problemaren enuntziatuan ageri diren kopuruen arabera. Hau da: ikasle batek problema berriro irakurriko balu eta egin duen planteamendua eta eman duen soluzioa berrikusiko balitu, ez litzateke berak kalkulatuako emaitzarekin harrituko.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio, edozein kasutan 4 puntu emanez.

3.- "**Hiru puntu**" emanen dira problema ongi planteatu arren emaitza okerra bada, eragiketaren batean okertu delako. Emaitza sinesgaitza da.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Emaitza "sinesgaitzat" joko da atera den kopurua inolaz ere ez baldin badator bat problemaren datuekin eta soluzioarekin. Hau da: ikasle batek problema berriro irakurriko balu eta egin dituen planteamendua eta soluzioa berrikusiko balitu, berak emandako emaitzarekin zeharo harrituko litzateke eta horrek eragiketak berrikustera behartuko luke, non okertu den antzemateko.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio, edozein kasutan 3 puntu emanez.

4.- "**Bi puntu**" emanen dira, problemaren planteamendua aztertu ondoren, antzematen bada ikasleak problema ebazteko beharrezkoak diren eragiketa eta arrazoibideetatik, bakarren bat egin duela. Beraz,

esan daiteke problema ebazten hasi eta bideratzen hasi dela, baina nonbait ez duela behar den sekuentzia segitu edo hartatik desbideratu dela. Esan daiteke problema parte batean ulertu duela.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Kalifikazioa ematerakoan, honako hau da kasurik zailena. Bi urrats edo gehiagoko problemetan, bi puntu emanen dira urrats horietako bat egin edo planteatu badu. Problema bakoitzari dagozkion irizpideetan kasuistika zehazten da, adibide modura-edo.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio (kasu guztietan bi puntu emanen lirateke).

5.- "Puntu bat" emanen da, problemak alde zuzeneko jardueraren bat badu eta jarduera horri erantzun ona eman bazaio, gainerakoa (planteamendua eta emaitza) oker egon arren. Halako galderarik ez duten problemetan ez da puntu hori emateko aukerarik kontuan hartuko.

Plantea daitezkeen kasuak:

Problemaren batean gerta daiteke aipatutako kategoria hau kontuan hartu behar izatea, problemaren beraren egitura dela-eta. Halakoetan, problemaren zehaztapenetan agertuko da.

1.- Jonek 25 kromo ditu eta Mikelek 37 kromo ditu.
Guztira, bien artean zenbat kromo dituzte?



Pentsatu eta erantzun:

Idatzi zenbat kromo dituen...

Jonek	25 kromo
Mikelek	37 kromo

Ebatzi problema

$25 + 37 = 62$ kromo, bien artean.

Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna ez da sinesgarria:..... 3 puntu.
- d) Planteamendua okerra da. Zuzen erantzun dio Koldoren eta Jonen adinaren gaineko galderari:..... 1 puntu.
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago:..... 0 puntu.

2.- Koldok 20 gaztaina bildu ditu eta Garbiñek Koldok hartu duenaren bikoitza bildu du. Bien artean, zenbait gaztaina bildu dituzte?

Pentsatu eta erantzun:

Nork bildu du gaztaina gehien?

Garbiñe.

Ebatzi problema

$20 + 20 = 40$ gaztaina bildu ditu Garbiñek;edo bestela: $20 \times 2 = 40$
 $20 + 40 = 60$ gaztaina bildu dituzte bien artean.

Zuzenketa irizpideak.

- Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hori hala izanik ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna ez da sinesgarria:..... 3 puntu.
- Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez: 20ren bikoitza kalkulatu du, baina ez du batura osoa kalkulatu.....2 puntu.
- Planteamendua okerra da, ulermenaren (Nork ditu kromorik gehien?) galderari ez baitio zuzen erantzun.....1 puntu.
- Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago0 puntu.

3.- Begi aurrean duzu bidaien eta ordutegiaren taula. Aztertu eta erantzun:

ATERA		IRITSI	
Iruña	12:30	Zaragoza	14:30
Iruña	7:00	Madril	10:30
Zaragoza	6:00	Bartzelona	11:00
Madril	10:00	Iruña	13:30

1.- Nondik ateratzen da Madril goizeko 10:30ean iristen den trenak?

Iruñetik.

2.- Nora doa goizeko seietan ateratzen den trenak?

Bartzelonara.



3.- Zenbat denbora behar da Iruñetik Zaragozara joateko?

Bi ordu / 2 ordu.

4 - Iruñetik Madril joan nahi izanez gero, zer ordutan hartuko zenuke trenak?

7:00etan / zazpietan.

5- Iruñetik aterata, nora joan zaitezke?

Zaragozara eta Madril. (hiri bat soilik idazten badu: erantzuna ez da osoa eta, hortaz, 0 puntu).

Zuzenketa irizpideak:

Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat. Guztira, 5 puntu.

4.- Bi astetan 46 orrialdeko liburu bat irakurri dut. Aste honetan 21 orrialde irakurri ditut. Aurreko astean zenbat orrialde irakurri nituen?



Ebatzi problema.

$$46 - 21 = 25 \text{ orrialde.}$$

Zenbait ikasleek honela egin ditzakete kalkulua: $21 + 25 = 46$. Erantzuna: 25 orrialde. Hala egiten badute, problema zuzen ebatzi dutela usteko da eta, hortaz, 5 puntu emanen dira. Batura soilik jartzen badute, baina erantzunik ez, 4 puntu emanen dira.

Zuzenketa irizpideak.

- Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hori hala izanik ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna ez da sinesgarria:..... 3 puntu.
- Ez da problema planteatu. Hori hala bada ere, problema ulertu duela erakusten du arrazoibideak. Adibidez: "bi astetan 46 orrialde irakurri ditu" datua idatzi du..... 1 puntu.
- Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago0 puntu.

5.- Xabierrek 56 ipuin ditu. Gorkak 25 ditu.

Xabierrez eta Gorkaz dakigunarekin, idatzi bi galdera.

- a) *Bien artean, zenbat ipuin dituzte?*
- b) *Xabierrek Gorkak baino zenbat ipuin gehiago ditu? Edo bestela, Gorkak Xabierrek baino zenbat ipuin gutxiago ditu?*

Zuzenketa irizpideak:

- 1.- Honako bi galdera hauek planteatu ditu: bien artean, zenbat ipuin dituzte? eta Xabierrek Gorkak baino zenbat ipuin gehiago ditu? (edo alderantziz, Gorkak Xabierrek baino zenbat ipuin gutxiago ditu?)..... 5 puntu.
- 2.- Honako bi galdera hauek planteatu ditu: bien artean, zenbat ipuin dituzte? eta nork ditu ipuinik gehien? (edo bestela, nork ditu ipuinik gutxien?)..... 4 puntu.
- 3.- Honako galdera hauetako bat planteatu du: bien artean, zenbat ipuin dituzte? edo Xabierrek Gorkak baino zenbat ipuin gehiago ditu? (edo bestela, Gorkak Xabierrek baino zenbat ipuin gutxiago ditu?)3 puntu.
- 4.- Eragiketarik egin beharrik gabeko bi galdera idatzi ditu. Adibidez: nork ditu ipuinik gehien?; nork ditu ipuinik gutxien?; zenbat ipuin ditu Xabierrek?; zenbat ipuin ditu Gorkak?.....2 puntu.
- 5.- Eragiketarik egin beharrik gabeko galdera bat idatzi du. Adibidez: nork ditu ipuinik gehien? Edo, nork ditu ipuinik gutxien?, etab.....1 puntu.
- 6.- Ez du galdera bat ere idatzi edo planteatu dituen galderek frogatzen dute ez duela ulertu problema0 puntu.

Oharra: honako galdera hau bezalakoak ere baliagarriak lirateke. Zenbat kromo gelditzen zaizkio Xabierri, Gorkari 10 kromo oparitzen badizkio?

6.- Aitorrek 67 euro zituen itsulapikoan. Bere urtebetetzean osaba-izebek dirua eman zioten eta orain 93 euro ditu. Bere urtebetetzean, zenbat euro sartu zituen itsulapikoan?



Pentsatu eta erantzun:

Zergatik ditu Aitorrek orain 93 euro itsulapikoan eta lehenago 67 euro zituen?

Bere osaba-izebek urtebetetzean dirua eman ziotelako edo, bestela, urtebetetzean dirua itsulapikoan sartu zuelako, etab.

Ebatzi problema

93 – 67 = 26 euro.

Zenbaitek kalkulatu hau egin dezakete: 67 + 26 = 93. Erantzuna: 26. Emaizta jartzen badute, 5 puntu; batura egiten badute, baina emaitza agerian jartzen ez badute, 4 puntu.

Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna ez da sinesgarria:..... 3 puntu.
- d) Planteamendua okerra da. Hori hala bada ere, ulermenari buruzko galderari ongi erantzun dio..... 1 puntu.
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago0 puntu.